



Kanposatua koloreztatu dute loreek hildakoen omenezko egunean .- Asko izan ziren hilerrira azaroaren 1ean hurbildu ziren herritarrak. Loreek kolore alai eman diote egun hauetan herriko hilerriri izan ere, asko dira azaroaren lehenengoa dela eta aurrez hilobiak garbitzera eta txukuntzera joaten diren herritarrak euren hildakoak gogoratzeko egun bereziari begira. Aurten gainera bertara gerturatzeko udalak Manttangorriren zerbitzu bereziak martxan jarri zituen asteazkenean urriak 31 eta ostegunean, azaroak 1ean lehenengo aldiz. Hauek harrera ona izan zuten herritarren artean. Krisiak krisi, lore saltzaileek salmenta kopuruan ez dute jaitziera nabarmenik antzeman, hori bai, iazko salneurriak mantendu dituzte egungo egoera ekonomikoak bultzatuta, Arantza Martin eta Conchi Reyk saltzaileek azaldu moduan.

3 HIRIGINTZA

Adarra kalerako azken proiektua aurkeztu du Udalak

PSE-EE taldearen kontrako bozka jaso zuen azken proiektuak eta hauek agerraldia egin zuten bozka arrazoitzeko. Bertan emandako datuak faltsuak izatea egotzi die udal gobernua eta ohar baten bidez azalpenak zabaldu nahi izan dituzte bizilagunei lasaitasuna adierazteko.

3 ANTZERKIA

“Su txikian” lana larunbatean Manuel Lekuonan

Glu glu produkzioaren “Su txikian” antzezlanaren larunbatean ikusi ahal izango da Lasarte-Oria. Galder Perezen antzezlanak azken hamarkadan euskal gatazka konpontzeko egindako sukaldela lana eramaten du oholtzara. Herrian bitan ikusi ahal izango da, bi hizkuntzatan.

4-5 ELKARRIZKETA

Lehen urtea gainditu du Barriok alkatetzan

Pablo Barrio alkatearekin solasean aritu gara karguan lehen urtea gaindituta. Lan gogorra egiten ari direla defendatzen du eta krisi ekonomikoak lana egiteko modu berriak bilatzea eragin duela. Udal barnean ekiteko moduak ere, errotik aldatu direla dio eta krisiak herriaren garapena ez duela etengo esan du.



K NOAUA!
ULTURALDIA
2012
Azaroak 2, 3, 10, 11 eta 30
USURBIL

AZAROAK 2, ostirala, SUTEGI • 20:00: **ERAKUSKETA** eta **LUNTXA**

AZAROAK 3, larunbata • **III. ANTZERKIZALE EGUNA** • 20:00:

“**PUBLIKOARI GORROTO**” ANTZERKIA • SUTEGI • Sarrerak: Aldez aurretik 8 euro, egunean bertan 10 euro eta bazkideak 6 euro (aldez aurretik Noauaren egoitzan)

AZAROAK 10, larunbata, KIROLDEGIA • 22:00: **ALURR** dantza garaikidearen **EMANALDIA** • Sarrerak: 6 euro. Bazkideak 5 euro (aldez aurretik Noauaren egoitzan)

AZAROAK 11, igandea, SUTEGI • 19:00: “**GAZTA ZATI BAT**” DOKUMENTALA • Doan

AZAROAK 30, ostirala, SUTEGI • 19:30: “**LETEREKIN KANTU BERBETAN**” Jon Sarasuaren HITZALDI-KANTALDIA • Doan

Adituak dio



Oihana Salazar

Psikologoa

Heriotzari tartea eskainiz...

Santu Guztien eguna lehengo ostegunekoa. Gure hildakoen omenez ospatzen omen da. Badirudi beste zenbait egunekin gertatzen den legez, gai konkretu bati egun bakarra eskaintzea nahikoa duela gure gizarteak kontzientzia hartzeko: heriotza, oraingoan.

Jaiotzen den guztia hiltzen da, heriotza ez da gugandik kanpo dagoen zerbait, guri dagokiguna baizik. Hala ere, gehienok heriotza ezkutatzeko joera izaten dugu. Zergatik ote? Beldurra diogulako, agian? Egia da, heriotzaren inguruan ezjakintasun asko dago eta bueltarik ez duen agur horrek ezinegon izugarria pizten du gugan. Baina, existituko ez balitz bezala bizitzeak ez digu inolaz ere lagutzen.

Lehenago edo beranduago denok egingo dugu topo erreallitate gordinarekin, baita gure inguruan heriotzaren gertaerak dakarren nahigabearekin ere. Gaur egungo kultura honek ordea, zaildu egiten du doluaren adierazpena: tristura, mina, amorrua, itxaropenik eza, erruduntasuna... Nahiago dugu emozio horien adierazpena lokartu, eta ahalik eta azkarren berriro ere beste aldera begiratu. Zaila egiten zaigu sufritzen ari den pertsona baten ondoan egotea. Baina ez dugu ahaztu behar; dolua aldaketa da, eraldatze edo transformazioa. Galdu dugun hori barneratu eta, bizitzan birkokatzeko behar dugun prozesua da: osasuntsua eta ezinbestekoa.

Gure edo inguruko ondoez horren kontzientzi hartze hutsak, gure mugak onartzea eskatzen digu, eta hilkorrak garelako onartzearekin batera, hemen eta orainean kokatzeko aukera dugu. Hankak lurtean jarri eta egunerokoa bizi, heriotzaren presentziarekin ohartzeko baiera zer den benetan garrantzitsua.

Loreak kanposantuan

Euskararen Maratoia eta Lasarte-Oria Bai! kros herrikoia- ren ajeak gaintuta, Txintxarri ohiko maiztasunera bueltatu da. Aspaldiko partez heltzen diogu gure txoko honi. Santu Guztien eguna izan da eta kanposantuan bertan dagoen mezu bati erreparatu nahi izan diogu "Laister esango da zuengatic esaten oi dana gugatic illciran".

Domu Santu eguna edota Santu Guztien eguna izan zen azaroaren 1ean. Jai egun honek, beste asko bezala, erlijio katolikoan du bere jatorria. Egun zehatzik ez zuten santu guztien, ezagun eta ezezagunen, omenezko eguna da berez azaroaren lehenengoa. Jatorrian loturarik ez zuten hildakoe- kin baina egun guztiz errotuta dagoen ohitura da, kanpo- santura joan eta loreak eramatea da tokatzen dena.

Iraganean, hildakoak eliza barnean lurperatzen ziren, eta orduan loreak ez, argia, kandela eta ogia eramaten ziren jarlekura. Urteko egun bakarrean baino, elizako ospakizun guztietan egiten zen hildakoei eskaintza. "Hiri-erritu" bezala definitzen da hainbatetan loreak hilerrira eramateko egun dagoen ohitura, denboraren poderioz herri txikietan ere hedatu dena. Hala ere, beste aldaketa bat ere sumatzen da gure artean eta hori errausketa da. Herritarrei galdetuta hori da askoren aukera. Ondorioz loreak eramateko lekua desager- tzen doa eta jendeak bere hildakoak beste modu batera omendu eta gogoratzen ditu. Hala ere, herriko kanposan- tuan bisitari kopurua altua izan zen eta loreak alaitasuna ekarri zuten herriko txoko honetara.

Hitz eta pitz

Hilerrira joateko ohiturarik ba al duzu?



Ana Arostegi

Aspaldi ez naiz joan kanpo- santura. Lehen bai, amona eta izebei bisita egitera joa- ten nintzen, baina, azken aldiz duela hamar bat urte. Beste era batera pentsatzen dut. Nire gurasoak duela gutxi hil dira baina ez naiz joaten. Nire senarra bera ere, duela 17 urte erraustu egin genuen Derion eta berak landatutako arbola baten azpian dago. Bere borondatea izan zen.



Eva Lucero

Ez. Mina barrutik eraman behar da, eta ez da normala egun batean elkartu eta zure senidearengatik negar egitea. Abenduan hil zen nire aitaz hitz egitean gaizki jartzen naiz, baina pertsona batez urte osoan gogoratu ez eta hilerrira itxura egitera joan, hilobia garbitu eta loreak jartzea! Ez dut ondo ikusten. Astero joan zaitezke, gogoz zaudenean eta nahi duzunean negar egin.



Maite Telleria

Desegokia da kanposantura joateko ohitura hori. Nire senarra hil zenean erraustu egin genuen. Hori bai egu- nero oroitzen dut, bihotzean daukat eta ez zait hortik joango. Ez naiz hilerrira joa- ten, gure sail batean lurpera- tu genituen errausak eta han elkartzen gara, urtero, Domu Santu egunean. Onera erraustea da, baina senideak hilerrian dituztenak joatea ondo iruditzen zait.



Simon Acuña

Ez daukat inor eta ez naiz joaten, baina bestela ere, behin hil eta gero, kitto, ez dut sinesten beste mun- duan. Badira sinesten dute- nak, baina nik ez. Seguraski horregatik ugaritu da erraustea. Errausak nahi duzun lekuan zabaldu eta kitto, ez dago hilerrira joan beharrik ere. Etxean ere eduki daitezke. Horren aldekoa naiz. Hilerrira zentzugabea da.

Iruditan



Egun atea hilerrian dago kokatuta, museo bezala eratu zen eremuan.

Domu Santu eguna

"Laister esango da zuengatic esaten oi dana gugatic illciran" horrela esaten du herriko hilerrira zaharreko atean dagoen idatziak. Bisitarietara ongi etorria emateko mezuaren hau, garai batean San Pedro elizaren atzeko aldean kokatzen zen hilerrira. Domu Santu eguna igarota askok egingo zuten hilerrira urteko bisita, loreak utzi eta hildakoak gogora ekartzeko egun berezia da. Hala ere loreak eramatearen erritua ere aldatu egin da eta geroz eta gehiago dira errausketak. Krisia honetan ere antze- man da eta garai bateko lore sorta dotoreak apalagoengatik aldatu dituzte herritar askok.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAKO Kultura eta
Euskara Departamendua

HIRIGINTZA

Adarra kalerako proiektu berriak eztabaida sortu du

PSE-EEk egin zuen agerraldia hau salatzeko eta udalak hauek emandako datuak faltsuak direla azaldu du

PSE-EEko Jesus Zaballos eta Iñaki Mugicak BM eta Adarra kalearen inguruan Udala gobernua aurkeztutako azken proiektua gogor salatzeko agerraldia egin zuten. Udala gobernua, sozialistek esandakoa faltsua dela azpimarratu nahi izan dute ohar baten bitartez.

Maidera AZURMENDI

Adarra kale inguruko azken lanek eztabaida eragin dute PSE-EEko taldea eta udala gobernua artean.

Zaballos eta Mugicak egindako agerraldian azaltzen zuten P6 eremua urbanizatzeko 2011ko uztailan adostu zuela aurreko gobernua proiektua lurraren jabe diren enpresek. Honakoa gelditu eta "2012ko uztailan beriz proiektu honen pliegoak atertzeko urgentziazko batzorde batera deitu zitzaizun". Pliegoak babes ofizialeko etxeei bizigarritasun baimena emango diete. Hau da, egin beharreko lanen barruan ura eta estolderia bezalakoak daude eta hauek burutu arte etxeetan ezingo da bizi. Bileran eztabaida sortu eta "ez zen erabakirik hartu".

Proiektu berria

Asteartean udala gobernua proiektu berri bat aurkeztu zuen. Aurretik aurkeztutakoan kirola egiteko leku bat aurrekusten zen, haur jolasak eta lorategiak azaldu zuten Iñaki

Mugicak. Proiektu honen diseinua Murias enpresak egin zuela dio udala gobernua, hau da, PSE-EEk ez zuela diseinatu.

"Azken momentuan hartutako erabakiaren arabera, bizilagunekin parte hartze prozesu bat abiatu nahi du udala gobernua eta bi faseetan egingo dira lanak" azaltzen zuten sozialistek. Lehenengo fasean etxebizitzaren ingurua txukunduko da, hau da irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak direnak egingo dira eta honekin batera bizigarritasun baimena eskuratuko dute etxebizitzek. Bigarren fasean, plaza edo parkea urbanizatzeko litzateke, parte hartze bileratan bizilagunen irizkiak kontutan izanda.

Iñaki Mugicak azaldu zuenez PSE-EEk kontra bozkatu zuen "oso larria delako gure ustez udala gobernu honek azaltzen duen inprobisazioa". Udaletik diote proiektu berria ez dela inprobisazioaren ondorio "inguruaren azterketa sakona egin eta txosten batean jaso dugu beharrezkoak diren identifikatzeko" txostena oinarria izanda, bizilagunei zer nahi duten galdetuko zaie.

"Ez da egia Udalaren atze-



Zaballos eta Mugicak asteazkeneko agerraldian.

rapenik izan denik proiektu honen lanketan" azaldu dute udala gobernutik. "lanak bere epeen barruan burutu dira eta martxorako bukatzea pentsatzen da aurreikusia zegoen moduan". Hala ere udalitik onartzen da proiektuak "mol-daketak" izan dituela.

Udalaren haserrea

Koordinazio faltak PSE-EEren arabera "ondorio larria" ekarriko du. Babes ofizialeko etxebizitzaren bizigarritasun baimena lanak atzeratzeagatik urtarrila baino lehen eskuratzea ia ezinezkoa izango da eta etxeen jabeek BEZ-aren igoera dela eta, %4tik %10era, 6.000 euro gehiago ordaindu beharko dituzte etxeak eskuratzeko.

Udalaren esanetan "P4 eta P6 eremuetako etxebizitzaren

eraikuntza hasieratik 2013ko matxoan bukatzea aurreikusten zen. Honekin batera, eta etxebizitza hauek okupatu ahal izateko, beharrezko ornidura eta urbanizazio lan guztiak epe berdinean bukatzeko aurreikuspena egin zuen Udala. Hilabete honetan enpresak, lanak aurreratzeko eta etxebizitza erosleei BEZa aurrezteko aukera izan genezakeela jakinarazi zigen. Horretarako, agian, lanak abendurako bukatu zitzaizkete la esanaz. Udaletxeak, aukera ikusita eta egungo egoeraren jakitun, bere barne lanak azkartu zituen bere esku zegoen guztia egiteko.

Beraz, "PSEek sortu nahi duen polemika babes ofizialeko etxebizitza hauen erosleei espektatibak sortuz, erabat

bidegabekoa da. Guk ez dugu famili hauen etorkizunarekin jolas egiteko intentziorik. Inork ez du esan obrak abendurako bukatuko direnik: ez eraikuntza enpresak, ezta Udaletxeak ere. Baina, biak gure borondate onenarekin gure lanak azkartu ditugu famili hauek diru hori aurrez dezaten. Eta horretan ari gara".

Parte hartzea zalantzan

Parte hartze prozesuaren aldeko direla azaldu zuten PSE-EEko ordezkariak baina "prozesuaren inguruan galdetuta, alkatuek ez zigen erantzunik eman, gainera prozesuan argitu beharko zaie herritarrei diru kopuru zehatz bat dagoela plaza hau egiteko, 120.000euro BEZ-a barne". Udala gobernuak datua okerra dela jakitera eman du, 170.000 euro izango dira.

Gainera proiektuan lur azpiko zabor ontziak kendu direla salatu zuen PSE-EEk. Erabaki hauen atzean atez ateko sistema jartzeko nahia dagoela adierazi zuten.

Udaletik argitu nahi izan dute "gure proposamena bide berri batetik doa, ez daukagu aurretik egindakoa errepikatze-ko asmorik eta hirigintza parte-hartzaile bat nahi dugu. Guztiok interes politikoak baztertu eta herritarren hobe beharrez pentsatu beharko genuke".

Euskal gatazka eta elkarrizketa sekretuak, "Su txikian"

Glu gluko produktzioaren "Su txikian" antzezlanak bihar estreinatuko da Azepeitan eta Lasarte-Orian larunbatean ikusi ahalgo da.

Galder Perezen antzezlanak azken hamarkadan euskal gatazka konpontzeko egindako sukalde lana aurkezten du. Besteak beste, Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek elkarrizketa sekretuak edo politikari sozialistek ETAko ordezkariekin Genevan eta Oslon izandako ezinbesteko negoziazioak taula gainera daramatza.

Honetarako Imanol Murua Uria kazetariaren "Loiolako hegiak", Jesus Egigurenen beraren "ETA. Las claves de la paz" eta Arnaldo Otegiaren "El tiempo de las luces" liburuak dauka oinarrian obrak.

Bi emanaldi

"Su Txikian" lanak euskaraz eta gaztelaniazko bertsoia du



eta biak ikusteko aukera izango da Lasarte-Orian. Euskarazkoa, larunbata honetan Manuel Lekuona kultur etxean eta gaztelaniazkoa, berriz, azaroaren 29an, Udaltzatza aretoan.

Boris Nogales kultura zinegotziak azaldu digunez, "emanaldi berezia izango da. Gaia negoziaketak prozesu denez, politika egiten den lekuan antzeztu nahi zuten eta udaltzatza aretoa aproposa iruditzen zitzaizun," azaldu du.

Era honetara, ikusleak gertu egon eta negoziaketak "lehen pertsonan" bizitzea nahi dutela, azaldu digu. Era berean, ikusle kopuru mugatua izango duela aipatu digu, 60 pertsonentzako lekua egongo da Udaltzatza aretoan.

Emanaldietarako sarrerak eskuragarri daude www.lasarteoriasarean.eu webgunean. Gogoratu gaztelarakoan sarrerak mugatuak izango direla.

Sarreraren zozketa

Honetaz gain kultura saileko arduradunak azaroan eskaintza zabala dagoela azpimarratu du, "ekitaldi hauetako batzuk herriko taldeen laguntza aukeratutakoak edo antolatutakoak dira". Asteate baterako, hurrengo astean Otehtzari biraka edo Ninika dantza ikuskizunak ikusi ahalgo dira.

Ekintza hauen guztien sarrerak internet bidez eskuratu ahal dira eta gainera, kultura sailak berrikuntza bat aurkeztu du. Zinemarako sarrerak online erostea gertatzen den hurrengo zine saiorako sarreraren zozketan parte hartuko dute herritarrek.

Honetaz gain, lasarteoriasarean webgunean harpidetuta dauden erabiltzaileen artean ekintzetarako bi sarrera bikoitz zozketatzen jarraituko du kultura sailak.

ATERPEA

Loteria salgai

Aterpea Merkatariaren Elkarteak Gabonetako Loteria du salgai.

Loteriako txartelak elkarteak osatzen duten denda eta komertzio guztietan daude dagoeneko eskuragarri.

IKASTAROA

Euskal jantzigintza

Ttunek antolatutako euskal jantzigintza ikastaroa bihar hasiko da. Azaroaren 6an hasita giro onean 10-12 laguneko, Euskal jantzi tradizionalki nolakoak diren ikusi eta gero nahi duenak berea egiteko aukera izango du aldi berean euskaraz praktikatu. Bederatzi saio izango dira astearte eta ostegunetan 15:00etatik 17:00etara burutuko da.

Pablo Barrio Lasarte-Oriako Alkatea

“Lana, lana eta lana, horixe tokatzen zaigu”

■ Urtea gairaindu du alkate lanetan Pablo Barriok ■ Egoera ekonomiko zailaren aurrean herrian gauzak egiteko modua errotik aldatu dutela defendatzen du harro ■ Pertsonalki, denboraren kudeaketan du erronka handiena, idazteko tartea aurkitzea

Pablo Barrio alkateak dagoeneko karguan bere lehen urtea egin du. Ez da erraza izan tartea hartzea, baina azkenean berarekin solasalditxoaz izateko aukera izan du TXINTXARRIK. Denbora honetan lan asko egin behar izan du eta aitortu digu ia baztertua daukala idaztea, bere benetako pasioa. Harro dago besteak beste herritarrek hurbilago sentitzen dutelako udala, behintzat hala esan diote kalean edota auzoetan burututako bileretan eta horrek bereziki poztzen du. Krisi ekonomikoaren garai zail honetan gauzak egiten jarraitu behar dela defendatzen du, hori bai hauek egiteko moduak errotik aldatuta. Herriaren garapena eta martxa ezin du egoera ekonomiko zailak eten.

Maider AZURMENDI

Pablo Barriok dagoeneko urte bete baino gehiago daruma alkate lanetan. Denbora honetan egindako guztia balorazioa eskatuta, argi dauka, urtea intentsoa izan da oso.

Horretaz gain Barriok azaldu moduan krisi ekonomikoak ere eragina izan du udalaren egunerokoa. Diru faltak derrigor martxa eta proiektu berriak ez gelditzez gauzak beste modu batera egitera bultzatu ditu. Krisiak ordea, ez du udalaren jarduna etengo eta beste modu batera lan eginez aurrera aterako direla argi dauka alkateak.

Maila pertsonalean, antzerkia da herriko alkatearen pasioa, orain guztiz utzita dauka halaberharrez alkate izendatu zutenetik. Ezaguna izatera ere ohitu behar izan da baina hala ere pozik eta harro dago Lasarte-Oriako alkate izanda.

Dagoeneko urte bete gairaindu duzue alkate bezala. Nola laburtu zenuke urte luze honetan bizitakoa?

Ez da erraza laburtzen, bai pertsonalki bai politikoki hamaika egoera eta kontu getatu dira urte honetan. Dena dela, hitz batekin laburtzekotan, intentsoa izan dela esango nuke, intentsoa oso.

Uste baino gogorragoa izan al da? Zer izan da gogorrena?

Gogorra... ez nuke hitz hori erabiliko. Jakina, dena ez da gozoa izan, ezta gutxiagorik ere, une gogorrek suertatu dira eta suertatuko dira,

zalantzarik ez daukat; baina, tira, horiek kudeatzeko gaude eta egingo dugu.

Txarrena eguneroko zurrumbilaoa dela esango nuke, bileraz bilera ibili behar tartirik gabe, gai batetik bestera salto, presio handiarekin egin behar duzu lan; are gehiago sartu berria izanda zure burua kokatu behar duzunean. Maila pertsonalean, nire buruarekin egoteko denbora botatzen dut faltan, zaila gertatzen zait hori; bizitza publikoak bizitza pribatua murrizten dizu, anonimotasuna galduta, denbora kendu...

Zer da zure lanen artean gehien gustatzen zaizuna?

Aurrekoa esanda eta osatuz, bizitza publikoak asko ematen dizula ere esan behar da. Jende asko ezagutu, normalean usaindu ere egingo ez zenituzkeen egoerak eta errealtateak bizitzen dituzu, batzutan atseginak eta bestetan ez, baina hori bertatik bertara ezagutu ahal izatea oso aberasgarria da.

Noizbehinka nekagarria gerta daitezkeen areen, jendearekiko harremana da politena.

Orain urte bete horrela izango duzue al zeinuen?

Erronka handia zela bagenekien, guztiontzat berria zen eremu batean sartzen ginen eta prest geunden, zintzu honetan ez dut sorpresa handirik hartu. Gero, egia da espero ez dituzunak ere topatzen dituzula, urte askotan sortutako ohitura eta moldeak hor daude eta eragina dute.

Zer moduz moldatzen zara EAJ eta Plataformako batzorde



“Erronka handia zela bagenekien, guztiontzat berria zen eremu batean sartzen ginen eta prest geunden, zintzu honetan ez dut sorpresa handirik hartu”

buruekin? Suposatuz daiteke zuen eztabaidatan ezberdintasun ideologikoak tarteka azaleratuko direla ezta?

Urte honetako esperientziatik, politenetako horixe izan da. Jatorri ideologiko eta soziologiko ezberdinak ditugun hiru taldeak bildu eta oso elkarlan politean ari garela lanean.

Logikoa denez, noiz edo noiz desadostasunak sortzen dira, baina horiek ere adostuta daude eta aurrera goaz proiektu komun honetan, oso gustura, dena esateko. Azkenean, herriak batzen gaitu eta

nik oso argi daukat herriak ez zuela ulertuko hirukoaren apurketa. Nik neuk ere ez.

Lehen urte agian “kokatzeko” edota herriari eta udalari neurria hartzeko izan da baliagarria. Hemendik aurrera zer?

Nabaria denez, lehenengo urtean, kokatu eta lehenengo zeterenaren kudeaketa tokatzen zaizula ezinbestez. Hemendik aurrera, argi eta garbi, aldaketa ikusi egin behar da.

Ez aldaketa aldaketa egiteagatik, noski, mende laur-

den baten kudeaketa mota aldatu beharra dagoelako baizik.

Besteak beste, horregatik aurkezten zara hauteskundera. Gauza pila dago egiteko eta horretan gaude. Ez dira diru errazeko garaik, krisiak eta Estatutik hartzen diren neurriak ez dute aurrera egin dituztenak. Noski, gizon-emakumezkoen arteko ezberdintasunak gabeko; hemen eta munduko beste edozein lekutan jaiotako elkar aberastuz biltzen dituen; kultura...

Zeintzuk dira labor hartutako erabaki nagusiak? Zuen politikaren ildo nagusiak zeintzuk izan dira?

Lehenengo urte honetan aurrera begirako oinarriak jarritzen saiatu gara, azken lau urtetan ezinezkoa zirudiena

“Urte honetako esperientziatik, politenetako horixe izan da. Jatorri ideologiko eta soziologiko ezberdinak ditugun hiru taldeak bildu eta oso elkarlan politean ari garela lanean”

egin dugu: aurrekontuak onartzea; berez, arrunta izan beharko luke horrek baina gure herrian ez da horrela izan.

Hala ere, niretzat denbora honetan garrantzitsuenak herri-tarrekiko harreman ereduak aldatzea izan da, udala herria hurbildu da, sentimendu hori daukat.

Sakontze eta garapen luzea eskatzen duen “Auzoz auzo” ekimena izan daiteke horren adierazle bat, baina ez bakarrik. Jendeari irekiak eta naturala dena modu naturalean egiten saiatu gara eta horrela jarraituko dugu.

Nola ikusten duzu herria? Zer hobetu da?

Aldaketa eman da, modu lasaian, nik normaltasun giroa aipatuko nuke. Gauzak egiten dira, jende pila dago kalean... Ez dakit persona egokiena naizen esateko, baina udala eta herritarren arteko harremana normaldu egin dela, udala hurbilago dagoela esango nuke, ez dugu beti asmatuko baina hori da gure asmoa behintzat.

Zeintzuk dira hartu beharreko hurrengo, berehalako, neurriak?

Berehalakoak 2013ko Ordenantzak dira, horietan ari gara lanean dagoeneko, eta ondoren datorren urteko Aurrekontuak daude, horiek baitira edozein politikaren oinarriko tresnak.

Gero, hurrenak aipatzearen, Gazteleku denbora tarte txikian martxan jartzeko lanean ari gara, eta gauza bere Okendoko aparkalekuekin. Egindako sondeorearen emaitzak ikusita alokairuan jarri dira denbora tarte ez oso luzean.

Gainera, aurrera begira apustu berri pila ditugu esku artean, baina ez dut gehiegi aurreratu nahi.

Nolakoa nahi zenuke Lasarte-Oria?

Horrelako galdera baten aurrean beti dago Olenzorori idatzitako gutun batekin erantzuteko tentazioa: langabeziarik gabeko herria, duina, solidarioa, batua, euskalduna, noski; gizon-emakumezkoen arteko ezberdintasunak gabeko; hemen eta munduko beste edozein lekutan jaiotako elkar aberastuz biltzen dituen; kultura...

Aspaldian utzi nioa uea izateari, ordea, badakit Olen-

zteru nor den eta badakit, azkenean, herria herriak egin duela. Beraz, herritar aktibo eta parte-hartzaileez osatutako Lasarte-Oria nahi dut, modu eraikitzailean ideiak eta kritikak aipatutako dituztenak, individualismoa alboratu eta auzolanerako prest egongo direnak.

Honela osatutako herri batek edozein egingo baito aurre.

Alkate izateak idazteko denbora kendu al dizu?

Idatzi? Nola esan duzu? Alkatezkat denbora asko kentzen dizu idazteko eta orokorren zure bizitza pertsonaleko ere bai.

Denboraren kudeaketan asko ikasi beharko dut segurasko, baina, ez dakit, inguruko alkateak ere ikusita estu eta larri lanean ari gara denok.

Beraz, ametsa litzateke idaztea, eta noizbait egingo dut hori baita nire benetako grina, baina ezinezkoa da momentuz.

Antzerkian jarraitzeko tartea izan al duzu?

Antzerkiarekin neukan harremanaren zatirik potoloena izozkailuan dago.

Tarteka kontu txikitxoren batean saiatzen naiz laguntzen, baina orain ikusle soil moduan jarraitzen dut.

Alkate izateagatik jendeak ezberdin jokatzen al du zurekin?

Betidanki ezagutu nautenek betiko modu berean jokatzen dute nirekin. Noski, orain jende guztiak, edo ia guztiak ezagutzen nau eta hori egoera berri bat da niretzat.

Lehenengo hilabetetan adibidez jende pila hurbiltzen zitzaidan animoak eta zorian emateko.

Orain egoera hori normaldu da guztiz eta jendearekin, herritarrekin, harremanak asko naturalagoak izaten dira, esan behar dut errespetuzkoak direla beti.

Egia da, hala ere, alkatezkat berez herritarrekin sortzen duela halako harreman berezi bat.

Saiazen naiz guztiekin egoten ahal den modu naturalean, azkenean alkate herriar arunt bat da, denbora tarte batez postu berezi batean dagoen herritar soil, besterik ez eta hori argi izan behar da.



Oporrak, zubiak, asteburuak libre hartzen al ditu alkateak?

Herritar moduan, oporrak, asteburuak eta bestelakoak ditut, noski.

Hala ere, onerako eta trerako lotan zaudela ere alkate zara 24 ordu eguneroko eta ez da arraroa ezkontza, emandit, afari, sari banaketa eta horrelakoak asteburu edota jai egunetan suertatzea. Esan moduan, berez, gauza politik

“Egoera ekonomikoak ez gaitu blokeatu behar; kontrakoa, denok hausnarketa sakonak egiteko garaia dira. Beste garaietako erantzunak ez dute balio garai berrii aurre egiteko”

izaten dira, giro gozoan jendearien egotekoak eta horrela disfrutatzen ditut, baina egia da zure denbora pertsonala asko murrizten dela.

Herritarrei zer esango zenieke bizi dugun krisi egoera honen aurrean?

Zalantzarik gabe arduraz jokatzeo garaia dira, ez da alarmino sortu behar, baina egoera zaila da eta zailagoa izango da.

Herritarrei zer esango zenieke bizi dugun krisi egoera honen aurrean?

Zalantzarik gabe arduraz jokatzeo garaia dira, ez da alarmino sortu behar, baina egoera zaila da eta zailagoa izango da.

Beste garaietako erantzunak ez dute balio garai berrii aurre egiteko. Norberak norberari begira egonda ez goaz inora, erantzun kolektiboak behar dira, baina ez instituzioen aldetik bakarrik, baita herritarren aldetik ere.

Ezin dugu gaur egungo egoera normaltzat hartu eta gauzak beste era batera izan daitezkeela pentsatu behar dugu etorkizuna lantzeko.

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ARETO-FUTBOLA.-

Aldazek ez zuen egun ona izan

Aurrera de Vitoriaren aurka 1 eta 4 galdu zuen ostegunean jokaturako partidan

Domu Santu egunean, herriko hainbat kirol taldeek jardunaldia izan zuten. Hala nola, nazional mailako Aldaz H.K. eta Aurrera de Vitoria taldeen arteko norgehiagoka izan zen Lasarte-Oriako kiroldegian. Lasarte-Oriako taldeak ezin izan zion arerioaren erritmoari eutsi eta 1 eta 4 galdu zuten.

Nerea EIZAGIRRE

Aldaz H.K. taldeak ostegunean Aurrera de Vitoria taldea aurrez aurre izan zuen kiroldegian jokaturako partidan. Oscar Garciak zuzentzen duen taldeak ez zuen egun ona izan eta partidak ihes egin zien.

Partida hasi baino lehen, ohorezko sarea egon zen. Urtzi Azpirozek Aldaz H.K.-ko jokalaria izan zen sarea jaurti zuena. Andoaindarra etxean da, berriro ere eta bere talde kideek omenaldi txikia egin nahi izan zioten.

Partidari dagokionez, bizia izan zen. Aurrera de Vitoriak ezarri zuen erritmoa eta intentsitatea eta Aldaz-ek ezin izan zuen marxa hori jarraitu.

Aerioak defentsa kanta osoan egin eta erasoan Aldaz-ek defentsaren hutsuneak bilatzen saiatu zen. Honela etorri zen partidako lehen gola.

Aldaz-ek ere aukerak izan zituen, baina Aurrera de Vitoria-ko atezain eta defentsaren lanak aukera horiek zapuztu zituen.

Gauzak honela, Aldaz-ek eraso baten ostean, Aurrera de Vitoria kontrari atera zen eta bigarren gola sartu zuen.

Aldazek ez zuen amore eman eta golaren bila zihoan. Lehen zatia bukatzeko 32 segundo falta zirela kórner batean gola egitea lortu zuen Aldaz-ek.

Era honetara, atsedenean, 1 eta 2-ko emaitza ikus zitekeen kiroldegiko markagailuan.

Bigarren zatian berdin

Nahiz eta atsedenean Aldaz-eko entrenatzaile eta jokariak egoera aztertu, bigarren zatian ez zen ezer aldatu.

Aurrera de Vitoria-k taktika berdina jarraitu zuen eta lehenengo minutuetan Aldaz-ek bere atea defendatu behar izan zuen behin eta berriro.



Aldaz H.K. taldeko mutilek zuten ongi jokatu Aurrera de Vitoriaren aurkako partidan eta 1 eta 4 galdu zuten.

Oscar Garciaren mutilak kontrari ateratzen saiatu ziren. Aldaz-ek eraso baten ostean, Aurrera de Vitoria-ko atezain eta jokariak argi ibili eta hirugarrenz balaia Aldaz-ek atean sartu zuten.

Partida amaitzeko 5 minutu falta zirela, Aldaz-ek bere jokoa aldatu zuen. Defentsa aurreratu eta erasoetan atezain-jokalaria atera zuen.

Era honetara, Aurrera de Vitoriaren atean arriskua sortzea lortu zuen.

Herriko taldearen gola gertu zegoela zirudien arren,

beste kontra batean Aurrerak laugarren tantoa egin zuen.

Eta Aldazek azken minutu-arte arte bilatu zuen gola, baina baloia ez zuen sartu nahi izan.

Partida zaila

Oscar García Aldaz H.K.-ko entrenatzaileak partidaren ostean azaldu ziguen, "bage-niekien partida zaila izango zela eta haiek baloia jabetza izango zutela".

Era berean, "Aldaz-ek ez du ongi jokatu eta arerioak ezarri du hasieratik intentsita-

tea eta erritmoa," gaineratu zuen.

"Defentsa ona egin eta kontrari ateratzea zen gure asmoa, baina ez dugu ezer lortu," adierazi zigun.

Azkenik, "laburtuz emaitza ez dugu lortu eta partidak ez da ona izan," aipatu zuen.

Izan ere, Aldaz H.K.-k ez du denboraldia ongi hasi, hiru partida berdin du eta aste honetakoarekin lau dira galdu dituenak. Hala ere, entrenatzaileak aipatu diguzen, "lanean jarraituko dugu, emaitza onak lortzeko".

PILOTA.-

Pilota partidu ederra amezketarren aurka

Kadete mailako Gipuzkoako txapelketaren 7. jardunaldia jokatu zuen Intzak larunbata arratsaldean Michelingo pilotalekuan. Herriko Arteaga eta Aranguren amezketako Zazpi Iturri klubeko Altuna eta Otamendi izan zituzten aurrez aurre. Garaipena zein ligaxkako bi puntuak etxean geratu ziren, 22-17 irabazi baitzuten Intzakoek partidu zail bezain polit batean.

Bertaratu ziren pilotazaleek gozatu ederra hartu zuten, txalo eta oihera artean, kalitate handiko pilota jokoa ikusteko parada izan baitzuten.

Hasieratik, gogor

Intentsitate handiarekin ekin zioten lau pilotariak lehiari. Tanto gogorak, ikusgarriak eta neketsuak izan ziren lehen herenekoak. Arteaga eta Altu-



Lau pilotariak partidu zoragarria egin zuten, erritmo oso bizian jokatu zuten gainera.

na aurrelariak beren dohainak berri emateko baliatu ahal izan zuten sotamano, gantxo, bolea zein punpa-lasterrean pilota txikituz.

Atzelariak eutsi eta ahalik eta gutxien huts egitea izan zuten xede, eta Arangurenek Otamendik baino gehiago

asmatu zuela esan daiteke.

Markagailua, parekatuta

Hasieran amezketarrak 3-6 aurretik jarri baziren ere, bila-kaera honakoa izan zen Intzako-koen 7-0eko partzialaren ostean: 10-6 / 12-12 / 16-16 / 22-17.

FUTBOLA.-



Hasi dira partiduak Michelinen.- Herriko berdeguna erabilgarri dago berriro ere. Pasa den astean herriko errugbi eta futbol taldeak entrenatzen hasi ostean, asteburuan jokatu ziren lehenengo futbol partidu ofizialak zelai eraberrituan. Jokalarien iritziz, itxura ona du zelai berriak, gautxo oraindik finkatu gabe badago ere, egoera onean utzi dutela diote eta gainera obrak azkar egin izana positibotzat hartu dute, herrian entrenatu eta jokatzeko abantaila handia dela uste baitute. Jakinaenez, zelaiak errugbira jokatzeko ere erabiliko da, hori dela eta, futboleko area txiki inguruan zuloak egin dituzte errugbi makilak erraztasunez kendu eta jartzeko. Gainera, errugbi jokoko murrak ere pintatu dituzte futbolekoekin batera.

Agenda

Osteguna 8, 21:30ean, Manuel Lekuona Kultur-etxean



Ezusteke harremanak

Ostegun zinea atalaren barruan, "Intocable" filma eskainiko da Okendo Zinema Taldearen eskutik. Ezer partekatzen ez duten eta bizitza ulertzeko oso ikuspegi ezberdinak dituzten bi pertsonaren arteko ezusteke adiskidetasun harremana du ardatz. Istripu baten ondorioz tetraplegikoa den gizon aberatsa da filmeko pertsonaia nagusietako bat; bestea, hura zaintzeko kontratatutako langilea. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 10, 20:00etan

Euskal prozesu politikoari buruzko, "Su Txikian" antzerkia eskainiko du Glu-Glu antzerki taldeak. Sarrerak leihatilan 12,6 euro; interneten 12 euro. Euskaraz.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 16, 20:00etan

Kukai dantza taldeak eta Tanttaka antzerki taldearen eskutik, "Otehitza biraka" emanaldia. Sarrerak leihatilan, 6 euro; internetez, 5 euro.



Larunbata 17, 18:00etan

"Ninika" haurrei zuzendutako dantza emanaldia eskainiko du Elirale taldeak. Familia osoarentzat aproposa. Sarrerak leihatilan, 3,2 euro; internetez, 3 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 11, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Los cachorros y el código de Marco Polo" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz

Igandea 11, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Intocable" filma eskainiko da Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 18, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "¡Piratas!" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz

Musika

ORBELA BELARDENA

Ostirala 9, 19:30ean

Oskar Benas-en kontzertu akustikoa. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.

SIGLO 20

Larunbata 10, 19:00etan

Orto Rock Festivalaz gozatzeko aukera

izango da. Honetan, Keep Diggin, Sony Crocket eta talde sorpresa bat izango dira, baita Orto Brothers Dj,s ere 00:00etatik aurrera. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.

MENDI KAFE-ROCK

Larunbata 17, 20:00etan

Iker Piris-en blues eta funk doinuak entzuteko aukera. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.



Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azteazkena 06, 18:00etan

Pello Añorgak 4 eta 5 urteko haurrei ipuin bitxi eta dibertigarriak kontatuko dizkie.

Astelehena 12, 18:00etan

Kontu Kantoi-ko lagunak hitza eta irudiaren bidez 6,7 eta 8 urteko haurrei ipuin liluragarri eta bereziak kontatuko dizkiete.

Herritarren txokoa

Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak

Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira Okendo plazan zegoen karpan: atril bat, 2 jertse, Obrint pas taldearen txapa duen txaketa bat eta aterki bat.

Gauza hauen jabeak Ttakun elkartetik hurbil daitezke hauek jasotzera.

Ostadarreko Loteria

Ostadar Saiarre Kirol Taldearen gabonetako loteria elkartearen bulegoan, Geltoki 25, eta Aldatzekua tabernan salgai dago dagoeneko eta nahi duenak eskuratu dezake. Kirol taldearen zenbakia 65667 da.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak, ezkontza eraztuna, eguzkitako betaurreko, bi telefono mugikor, MP3 bat, mikrotxipak dituen plaka bat eta emakume beroki bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona gutziet eska-

tzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Autobusa Baionara

Herrirak azaroaren 10ean Baionan antolatu duen manifestaziora joateko autobusa aterako da Lasarte-Oriatik.

Autobusean joateko Ilargi, Artizar, Gure Etxea tabernatan eta Xirimiri elkartearen daude izena emateko zerrondak.

Korrika egiteko talde amateurra

Lasarte-Oriako korrika egiteko talde amateurra sortu nahi da. Lehenengo urratsak!!

Hitzordua, ateri dagoen astelehentan 20:00etan Hipodromoko zubian. Barraskilo eta bareak animatu!

Hirigintzako saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oriako auzo elkarteak antolatzen duen marrazki eta margo ikasturorok klaseak eskaintzen dira Manuel Lekuona kultur-etxean.

Hauek astezken eta ostiraletan dira, 18:30ak eta 20:30ak bitartean Manuel Lekuonako 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Iradokizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun

orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreran dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreran dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

2012

ELKARTASUN

zozketa

Mercedes furgoneta
Tablet

	ZENBAKI SARITUAK	ATERATZEN EZ BADA
1. Saria	90.067	101.994
2. Saria	41.846	55.888

Gotzon Huegun Eskultorea

“Garrantzia eman diot egur tailari”

“Ura eta Egurra” erakusketa jarri du Huegun eskultoreak Donostiako Aquariumean

Egur tailari beste dimentsio eta garrantzia eman nahi izan dio Gotzon Huegun-ek “Ura eta Egurra” Donostiako Aquarium-ean jarriko duen erakusketa-aren bidez. Egurrezko zazpi lan eraman ditu eta bereziki tamaina handiko bi mural dira ikusgarriak. Azaroaren 8an ireki eta urtarrilaren 2ra arte egongo da zabalik, Aquarium-eko Nautilus aretoan.

Jon ALTUNA IZA

Donostiako Aquarium-eko aretoa toki aparta izango da Gotzon Huegunen lanak ikusteko. Batetik, ohiko bisitaren barruan egongo da ikusgai, akuario, arrainontzi, ontzi eta abarren artean, urtarrilaren 2ra bitartean eta bestetik, azaroaren 10ean eta 24an, zein abenduaren 15 eta 29an, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean, sarrera doan izango du erakusketa Paseo Berriko atetik eta Gotzon Huegun bera bertan izango da erakusketari buruzko azalpenak ematen.

Zure lehen erakusketa tematikoa al da “Ura eta Egurra”?

Tematikoa baino, arreta egur tailan bakarrik jarri dut, horri eman diot lehentasuna. Muralak dira, batzuek tamaina handikoak. Ez dut eskulturarik jarri, egur tailari beste dimentsio bat emateko aukera dago Aquarium-ean, goi mailara altxatzekoa edo.

Uraren inguruko lanak al dira?

Aquarium-eko lagunei bururatu zitzaizkien “Ura eta Egurra” izenburua, eta ondo dago, pieza guztiak urarekin lotu daitezke eta, baina ez dut erakusketa prestatu uraren gaian pentsatuz.



Duela lau bat urte enborrean egin zuen Aquariuma baino sinpleagoak dira pieza berriak.

Erakusketarako bereziki prestatu al dituzu piezak?

Erakusketa honetarako egin ditut bi pieza handienak eta ikusgarrienak, eta aurretik egindako pieza batzuei aldaketak batzuek egin dizkiet.

Guztira zazpi pieza dira, berri berriak bi, handienak.

Zazpi lan horietatik bat umeei eskainia da, ezta?

Aquarium txiki baten egur-taila, altuera baxuan jarri dut asto

batean, nolabait esateko haurren altueran. Erakusketetan helduen prisma edo ikuspegia izaten ohituta gaude beti, hala ere, pentsatzen dut adin guztietako jendea izango dela bertan eta haurrei keinu bat egin nahi izan diet. Dena ez da helduentzat pentsatu behar.

Egin zenuen duela urte batzuk Aquarium bat enbor batean...

Hori bikaina zen baina ez daukat jada. Horretan oinarrituta, baina askoz ere sinpleagoak dira hauek, ez dute zer ikusirik.

Nola sortu zitzaizun erakusketaren aukera?

Bixente Zaragueta, Aquarium-eko zuzendaria, Hernanikoa da, hareman du bertako margolari batzuekin eta berak proposatu zidan. Niri ez zitzaidan sekula bururatu horrelako leku batean erakusketa jartzetik, ez nekien bertan horrelakoak egiten zirenik ere. Aukera eta toki ona izan daiteke.

Elkarrizketa oso osorik txintxarri.info webgunean

bihotzetik plazara

Hain izan da handia Euskararen 8. Maratoian egin den lana oraindik ere **eskertzei** ezin diegula amaiera eman. Hona hemen bigarren kapitulua:

Alaitz Mendizabal, Alboka abesbatza, Alex Ramos, Axier Iraola, Beñat Elizegi, Beñat Iguaran, Boris Nogales, Dabid Parra, Dinbi Banda, Donostiko plaza dantzako taldea, Gazte Kluba, Gema Tejero, Iker de la Iglesia, Imanol Lizardi, Iñaki Arroyo, Iñigo Arratibel, Iñigo Arieta, Jon Mujika, Jon Pelloren Kuadrilla, Koldo Iribar, Leire Iartza, Lurdes Arizmendi, Maialen Loinaz, Mainer Esnaola, Maitane Izagirre, Merkatuko langilea, Mikel Aruti, Miren Urdanpilleta, Naiara Sarasua, Nerea Pagola, Noelia Bernejo, Olatz Beginstain, Orona, Plaza dantzako taldea, Xabier Andonegi, Xabier Zaldúa....



...eta eskertza zabal honetan zuetako hainbat eta hainbat izendatu gabe geratzen zaretenoi, Eskerrik Asko!!!!!!!!!!!!

Ttakuneko zuzendaritzaren izenean